

Familia agurgarriok:

Gutun honen bidez datorren ikasturtean, 2015-2016, jantokian eta haurtzaindegian izango diren aldaketak azaltzen dizkizugu.

Haurtzaindegiko urteko kuota **250 €** izango dira, **125 €**ko bi errezibotan ordainduta (az.-apir.) ordainduta. Aukera izango dugu noizean behin ere erabiltzeko. Egun bat **5 €** izango dira eta hilabete bat, **50 €**.

Jantokia egunero erabiltzen duten ikasleek **90 €** ordainduko dituzte hileroko. Guraso Elkarteko familiek % 6ko beherapena izango dute, beraz, **85 €** ordainduko dituzte.

<u>EGUN KOPURUA</u>	<u>GURASO ELKARTEA</u>	<u>GURASO ELKARTEA EZ</u>
5 EGUN TINKO	85 €	90 €
3 EGUN TINKO	65 €	69 €
2 EGUN TINKO	40 €	43 €
EGUN 1 TINKO	20 €	22 €
EGUN 1 NOIZEAN BEHIN	6 €	6 €

Jantokia erabiltzeak honako arauak onartzea dakar:

1. **Juani** da jantokiko koordinatzailea. Berari eman behar zaizkio jantokiarekin zerikusia duten abisuak (ez etortzeak, altak, bajak, menu bereziak, gora beherak...)
2. **Ikasle tinkoa** (egunerokoa) bost egun baino gehiago jarraian falta bada eta abisatzen badu, familiari bazkariaren dirua itzuliko zaio (**2.43 €**) eskola egun bakoitzeko. **Irailean** eta **ekainean**, ikaslea ez bada jantokian gelditzen, Juaniri esan behar dio lehenago, eta bazkariaren dirua itzuliko zaio. Abisatzen ez badu, ez zaio ezer itzuliko. Langileei dagokien dirua (monitoreak, sukaldaria, laguntzailea...) ordaindu behar da, ikasturte osorako kontratatzen baitira (10 hilabete).  
  
**Ikasle bekaduna** Ikasturtean zehar falta direnean, erabili ala ez, ez zaie ezer itzuliko, beka kobratuta daukatelako dagoeneko.
3. **Noiz behinkako ikasleari (egun 1, 2 edo 3), bekaduna izan ala ez, irailan** eta **ekainean** gelditzen ez bada ez zaio ezer itzuliko.
4. Hileko kuota hilabete amaieran pasatuko da (26tik aurrera).
5. Erreziboren bat itzuliz gero, itzulketaren kostua ordaindu beharko da.
6. Ez etortzeagatik dirurik itzuli behar bada, ikasturte amaieran egingo da.
7. Bi errezibo ordaindu gabe izateak, zerbitzua galtzea dakar, egoera eguneratu arte.